

DEMAGUN EHUN URTE BARRU

—hizkuntza gutxitu bateko idazle—

Anjel Lertxundi

HERIOTZAK LUZE saihestezina du itzala: denok/dena hil beharra. Finitoak gara. Jaioko dira berriak, dio gure kanta batek, baina heriotza hurbil sentitzen duenarentzat ez da kontsolamendu. Azken ordua hurbil ikusten duenak eutsi egin nahi dio bizitzari, atzeratu egin nahi du heriotza, erremedioak bilatu nahi ditu aje, adin, ahuldade eta gaixotasunen kontra. Bizitzaren legea da bizitzari eutsi nahia, eta jokutzen dugu heriotza existituko ez balitz bezala. Hala ere, gertatzen da gorputzaren flakiak edo osasuna galtzeko arriskuak eragin egiten diola bizitzari. Halaxe hizkuntza eta halaxe hizkuntzaren osasuna: haren egoerak, osasunak bezala ahuleziak, eragin egiten dio hura mingainean darabilenari, harekin letrak biziarazi nahi dituenari.

Idazle bakoitza mundu bat da, eta hizkuntzak berebiziko garrantzia du bere idazle-mundu horretan. Hizkuntza bakoitzak bere arnasa du, bere ibilera, bere idiosinkrasia; bere akatsak eta bertuteak; bere alde herrenak eta osasuntsuak. Hizkuntza bakoitzak munduan izateko bere estilo propioa du. Hizkuntza nolakoa den eta idazleak nolako harremana duen hizkuntzarekin: horra marka ezabaezin bat idazle horren literaturan. Hizkuntzaren egoerak deus edo oso gutxi eragiten dien idazleak daude eta egoera hori modu agonikoan bizi dutenak daude (“pesimismoaren turutak jotzen dituztenak”, Zygmunt Mycielski

poloniarren hitzetan): idazle-mota asko kabitzen da abaniko horren zabaltze-biltzeen eremuan. Baina kasu guztietan da neurgarria hizkuntzaren egoera, pisua, lasta. Horri esker, idazle batek hizkuntzarekin duen harremanak asko balio digu haren lan artistikoa ulertzeko orduan.

GOGOAN ILTZATUTA gelditu zitzaidan, badira urte batzuk, Gombrowicz-ek Czeslaw Milosz-i idatzi zion gutun bateko espekulazioa eta liburu honetan bildutako kolaborazioen muina: bi idazle poloniarrek beren nazioko literaturaren etorkizuna zuten gutun-trukaketaren gaia, eta Gombrowiczek ziotson Miloszi, baina ia bere baitarako bezala: “Hemendik ehun urtera, artean gure hizkuntza existitzen bada...”.

Milan Kunderaren *Le Rideu* liburuan *El telón* espainiar bertsiotik hartu nuen aipua. Luzeagoa da orduko hartan azpimarratu nuena, Kunderak aipua eman aurretik egindako iruzkin laburrak ere nire atentzioa erakarri baitzuen. Hona gaztelaniazko testuaren azpimarra osoa: “Gombrowicz, en una carta a Czeslaw Milosz, escribía una frase que no se le habría ocurrido a ningún español: ‘Si dentro de cien años, nuestra lengua todavía existe’”. (1) Orijinalean ere *notre langue* dio: “Si, dans cent ans, notre langue existe encore...” (2)

Ordurako irakurriak nituen Gombrowicz-en *Egunerokoak* —bertan ageri da Kunderak aipatutako gutuna—, baina ez nion erreparatu esaldiari. Ez da harritzeko: Kunderak *notre langue* dioen tokian, Bozena Zaboklickak eta Francesc Miravittlesek, Gombrowiczen itzultzaileek, honela ematen dute esaldia: “Dentro de cien años, si todavía somos una nación...” (3). Ez da, noski, gauza bera, baina Gombrowiczek *Polonia*

edo *nazioa* polonieraren komunitate gisa ulertzen du bere testuetan. Zilegi zitzaidan, beraz, esaldia Kunderak frantsesez emandako moduan hartzea. Baina, badaezpada. Katarzyna Sosnowska itzultzailearengana jo nuen. Katarzynak uste nuena baieztatu zidan mezu adeitsu batean. Gombrowicszen orijinalak dio: "Za sto lat, jeśli **pozostaniemy narodem** [...]" (Dentro de cien años, si seguimos siendo una nación"), eta Katarzynak dio bere mezuan: "Iruditzen zait Gombrowicz-ek multzo kultural baten moduan darabilela nazioa. Hala ere ez nago oso seguru harentzat oso argia ote zegoen nazio kulturalaren eta nazio politikoaren arteko diferentzia. Ezin dugu ahaztu Gombrowicz jaio zela eta hazi zela Poloniak artean ez zeukanean bere estatu nazional propiorik; beraz, harentzat, Miloszentzat eta haien belaunaldiarentzat bezala, nazioaren iraupena gehiago kontzentratzen zen hizkuntzan eta kulturaren borroka politikoan baino" (4).

POLONIERAK bezalako tradizio literario oparoan lan egiten duen idazle batek zalantza hori agertzen badu bere hizkuntzaren iraupenaz, zer esan beharko luke tradizio literario urriko idazle batek, demagun euskaraz ari den batek? Logikak dio hizkuntza agoniatsu batean idazteak nahiko berarekin dakarrela idazle agoniatsuak sortzea... Komeni zaigu —idazten dugunari komeni zaio— kontuan izatea.

Hizkuntza guztiak dira ahikorrak, baina iraugipen-data hurbil batek nola eragiten dio hizkuntza horretan ari den idazle bati? Kausa-efektu gurpil horretatik askatzea eta borroka horretatik etekin literario ahalik emankorrena saiatzea da, ene ustez, trantze hori bizi dugunok literaturari egin diezaiokegun ekarpenik originalenetakoa; eta idazkuntzak hizkuntza jakin batean baitauzka bere erroak, ia

ezinbestekoa egiten zait —normala, alegia— euskararen etorkizunak toki berezia izatea gure kezka eta hausnarketa literarioen artean.

Finean, gutxi erreparatzen zaion auzi bat da hizkuntzaren egoerak eta idazlearen lanak duten harremanarena, baina nago berebiziko garrantzi duela, artistikoki bezala sozialki ere, gure mundu gero eta globalizatuagoan. Askok pentsa dezake iraungipen-data buru gainean sentitzen duten literaturak *in margine* bizi direla, zaharretxe batean bezala, azken kanpaiak noiz entzungo. Baina ahuleziak ahulezia, sistema literario oso bat konformatzen dute beren ahulenean ere. Eta, inportanteena: sortzaileen bulkada artistikoak literatura indartsuenetako idazleenak bezalakoak dira izatez eta anbizioz; beste kontu bat da hizkuntzaren egoerak —tradizio urriak, sistema literarioaren *handicap* nabarmenak, sozializazioak...— marraztutako mapa inkognitez betean ibili beharra. Baina han-hemengo literatura *txiki*en gero eta presentzia handiagoak berarekin dakar galdera egitea ere halako literaturen existentziaz eta globalizazioan luketen tokiaz. Baina hizkuntza hegemonikoetako idazleen parte hartzearekin errazagoak lirateke hausnarketa eta debatea. Hala ez bada, nekez lortuko dugu elkarren arteko komunikaziorik, nekez egingo dugu argi pixka bat literatura urrietako idazleok soilik hain ugaritasun handiko mundu asimetrikoan.

Herri elebidun batean eta herri horretako hizkuntza ez hegemonikoan idazten dudalarik, beti piztu du nire jakin-mina halako egoera batek nola eragin liezaiokeen idazkuntzari. Horixe izan zen, bada, joan zen abenduan hainbat idazle eta itzultzaile Donostian biltzeko asmoaren oinarria.

NIRE IDAZLE LANAK kanpora eramaten nauenean ez da batere bitxia izaten kazetari, irakurle, katedratiko edo beste idazleren baten galdera entzun beharra: zergatik idazten duzu euskaraz? Ez gara galdera jasan behar izaten dugun bakarrak. Adam Zagajewski idazle poloniarrek “En defensa del fervor” liburuko azken testuan dio besteak beste:

“Batuetan nire lagunek galdetzen didate: zergatik ez duzu ingelesez idazten? Edo —Frantzian banago— zergatik ez duzu frantsesez idazten? Dirudienez, jakintzat ematen dute aldaketarekin irabazi egingo nukeela, baliagarriagoa delako nazioarteko hizkuntza batean jardutea hizkuntza probintziano batean baino. Printzipioz, bat nator; bai, agian praktikoagoa litzateke hizkuntza hedatu batean idaztea [...] Polonieraz idazteak esan nahi du Poloniako historiaren herentzia konplikatua onartzea” (5). Eta Czeslaw Milosz-ek “*Abecedario*” autobiografiako *Poloniera* sarreran: “Polonieraz idazteak, non bizi garen kontuan izan gabe ere, belaunaldiz belaunaldi hazten doan obra kolektibo bateko partaidetza adierazten du” (6)

Hizkuntza baten hautamena egiten duen idazleak hizkuntza horretan mintzatzen den komunitatearen historia hartzen du oinordetzan, baina hartzen du oinordetzan komunitate horrek isiltzen duena ere (batez ere isiltzen duen hori adierazteko behar du herentzian jaso duena).

JAIO GINEN, BIZI GARA inguru kultural baten erdian, laster hizkuntza baten jabe egiten gara, mintzatzen gara gure aurrekoek asmatu zuten tresna batekin. Jaso dugun ondare kulturala aktibatzea da hitz egite soila. Hitz egiten dugunean, gu manifestatzen gara, baina tradizioa eta historia manifestatzen dira gurekin. Hitzetan dago isildutakoa ere, guk entzuteko zain. Hizkuntza da arbasoek utzi ziguten ondare

espiritualena, hitz egiten duguna gure aurrekoek asmatua da ia ehunean ehun. Ondare espiritual hori da guk ondorengoei utziko dieguna.

Etorkizunaz ari naiz, baina ezin dut ahaztu zenbat kemen eskaini behar izan diogun euskararen etorkizunari. Gaixo baten moduan ikusten genuen euskara, etxeko hizkuntzaren gaixotasunaz mintzatzen zitzaizkigun gurasoak, hurbileko jendea, gure eskuetara iristen zen euskarazko produkzio urria: gure aurreko belaunaldi literarioek orduak eta orduak ematen zituzten amaren ohe ondoan haren arnasestiak entzuten. Uste dut euskara sentitzeko modu agoniko horrek ikaragarri markatu gintuela, eta uste dut, halaber, gure osasun literarioak bezala euskararenak ere hizkuntza bizitzeko modu askatu eta askatzaileak behar dituela.

HIZKUNTZA HEGEMONIKOETAN idazten duen jendea apenas den kontziente erabiltzen duen tresna horren iraupen finitiaz. Ezta beharrik ere. Hizkuntza osasuntsu batean idazten du, eta zailtasunak izatekotan, ez dira hizkuntzak eraginak, idazlearen beraren exigentzia artistikoak edo merkatuaren tiraniak baizik. Hizkuntza gutxituetan idazten dugunok, aldiz, halabeharrez pentsatzen dugu hizkuntza agian desagertu egingo dela etorkizun hurbil samarrean edo ez hain hurbilean; ezinbestean pentsatzen dugu hizkuntzaren ezintasunetan, diglosian, hizkuntzaren nolakoak eragiten dizkigun kezketan...

Historian oso atzera egin gabe ere: galera linguistiko eta kultural handien lekukoak izan gara frankismoaren garaian. Euskara zertan den gaur, zer izango den etorkizun hurbilean? Soziologiak eta gure pertzepzioak optimismorako bezala ematen du pesimismorako ere.

Nolanahi ere, komeni zaigu ez ahaztea joan zen mende hasierara arte gaskoia oso presente egon zela Donostian eta inguruetan, hor dauzkagu gaskoiak bertako toponimian utzitako oroigarri gisako lekukoak: Urgull, Miramont, Amara, Embeltrán, Aiete, Morlans... Agian horregatik ere bagara sentiberagoak. Oraindik oroimenean dugu galera hura, eta oraindik oroimenean dugu euskara zein egoeratan zegoen ume ginenean: agian horregatik ere salbamendu-oholari edo erreskateontziari bezala begiratzen diogu iraupenaren auziari. Lar kezkatzeraino, beharbada; morbo agonikoaren obsesioarekin bizitzeraino. Baina etorkizunari begiratu nahi baldin bazaio, benetan da sanoagoa bai hizkuntzarentzat bai hiztunontzat gure esamolde batek aholkatzen diguna: "hil artean bizi, lagunok!", eta ahal den modurik duin emankorrenean izan dadila.

Azken finean, idazle zein itzultzaile baten lan-tresna —hizkuntza— kinka larrian egotea edo osasuntsu egotea ez da garrantzirik gabeko auzia beren lanerako. Besteak beste, osasunak kezka uxatzen du eta bizipozerako aukera ematen. Hargatik, zer nolako eragina ote du idazleongan eta irakurleongan tradizio oparo batetik idazteak edo ia tradiziorik gabeko urritasunetik? Gauza bera ote da aspaldi estandarizatutako hizkuntza batean aritzea eta, aitzitik, batu gabe edo batu berri batean? Arazo berak eragiten ote ditu lan-tresnaren ofizialtasunak edo ofizialtasun faltak? Berdin begiratzen ote zaio munduari hizkuntz-harremanen hegemoniatik edo diglosiaren erosiotik?

HERTA MÜLLERREK DIO hizkuntza bakoitzak dituela bere begi propioak (7). Mintzoaren egitura eta ezaugarriak, mintzo horren tradizioa eta eguneroko bizitza, eta, noski, *humus* horretatik sortutako literatura ditu hizkuntza batek begi propioak. Hizkuntzak zenbat moldatzen digu ikuskera, hizkuntza bakoitzaren idiosinkrasiak zenbateraino eragiten dio begiradari? Zaharra da debatea, badakit, baina ez du gaurkotasuna galdu. Eta ez da hemen bildu gaituen debatea, zerikusi handia baldin badu ere egunotan hemen eztabaidatu nahi dugunarekin.

Ados baldin bagatoz oinarriarekin, hau da, ados bagaude munduari begiratzeko modu orijinal bat dela hizkuntza bakoitza, eta ados bagaude ez dagoela hizkuntzarik espresibitatearen monopolioa eta mundua zuzen kontatzeko bermea dituenik, baizik begi guztiek dutela mundua ikusten bakoitzak bere mintzoaren ezaugarrien arabera, ados egongo gara Muñoz Molinak dioenarekin ere: “edozein hizkuntza da bakarra eta nahitaezkoa, hizkuntza horrek mila hiztun izan ala mila milioi”. Baina bat etorrita ere hizkuntza bat galtzeak kalte handia dakarkiola munduari, nola neurtzen da kaltea eta munduak nola bizitzen du galera?

HIZKUNTZA GUZTIEK mundua izendatzeko eta deskribatzeko potentzialtasun bera izanagatik ere, hizkuntzen zirkunstantziak desberdinak dira, eta hizkuntza baten egoerak haren historiari eta garapenari eragiten dio. Zirkunstantzia guztiak ez dira historikoak, hizkuntzaren beraren izaerak ere badu zerikusia hizkuntza horren garapenean. Jar dezadan idazkuntzarekin zerikusia duen adibide bat: gure hizkuntza aglutinatzailea da eta berezkoa du —naturala— hitzak

luzatzeko joera. Hori ez da ez on ez txar: da. Euskaraz nekoso baldin bada silaba bakarreko hitzekin esaldiak osatzea —*ez da ez on ez txar: da*—, are korapilatsuagoa da halakoekin testu luzeak txirikordatzea, silaba gutxiko hitzek ahalbideratzen duten erritmo bizi bat sortzea, eta, ondorioz, Racine-ren bertsoa bezalako perlak abiaraztea: *Le jour n'est pas plus pur que le fond de mon coeur* (Zerua ez da puruago nire bihotzeko hondoa baino) (8).

“Hizkuntza bakoitzak muga batzuk ditu baina baita aukera batzuk ere bere-bereak direnak eskusiboki” (9), zioen Italo Calvinok. Gure-gureak diren ezaugarri horien aukera espresiboetan sakontzea da gure egitekoetako bat.

Eta hona non hainbat idazle eta itzultzailek egiteko horren funtsaz jardun genuen 2016ko abenduan, Donostia 16 Europako Kultur Hiriburuko programazio zabalaren baztertxo batean: hizkuntza baten egoerak zenbat eragiten dio idazle baten idazkuntzari, bere lanari?

Donostian bildu genituen idazle eta itzultzaileei honela zehaztu genizkien proposamena eta eskaria:

“[...] imajina ezazue zuen burua tradizio literario urriko hizkuntza bateko idazle edo itzultzaile gisa. Oso eskergarria genuke zuen ikuspuntua, interesgarria zaigu jakitea nola kokatuko zenuketen zuen lana gure gaurko munduan —gure tokian jartzeari inolako zentzurik ikusiko zenuketen kasuan, jakina—, eta, batez ere, guretzat perspektiba interesgarri asko zabaltzen dituen talaia litzateke honakoa: zuen ustetan halako egoera batek zer eragin izango luke zuen idazkuntzan? Lanbide zenuketen hizkuntzaren destino lausoa zer nolako zama izango litzateke zuen literaturarentzat?”.

LUZE JOKO LIDAKE euskararen historiak gaiarekin dituen zerikusiak izendatzeak, eta ez da hau horretarako abagunea ere, baina idazle naizen aldetik eta nik nire hizkuntzarekin bizi dudan harremanarekin lotuta, lau zirkunstantzia aipatuko ditut:

Lehendabiziko zirkunstantzia, urritasuna: gure tradizio literarioa urria da, tradizio propioak ez du aseko gaituen eredu literariorik. Baina, nolana ere literatura nazionalak deitzen izaera ez da orain mende batzuk bezalako, ez dira garai bateko konpartimentu isolatuak, gehiago ezagutzen dugu elkar, gaurko idazle bati errazagoa zaio ereduak bere hizkuntzatik kanpo bilatzea hemezortzigarren mendeko poeta bati baino. Harkaitz Cano, 2016ko abenduko jardunaldiak antolatzen hainbeste lagundu zidan laguna, eta ni, biok euskaraz idatziagatik ere, elkarrengandik urrun egon gaitezke eredu literarioan bezala aukera estetikoetan; eta, aldi berean, gure lanak irakurri dituen irakurleak badaki Harkaitzen ereduek harreman gehiago dutela Estatu Batuetako hainbat jardunekin eta baita zehazki literarioak ez diren hainbat mugimendu artistikoekin ere. Klasikoagotzat naukate ni, hurbilago nago Europa zentraleko hainbat jardunekin.

Garai bateko literatura nazionalen isolamenduak bere baitako bizitzan markatzen zituen joera estetikoen arteko tentsioak. Gaur, ez. Gaur hizkuntza gutxitu bateko idazle batek nazioarteko jardun, korrante eta aire poetikoekin kontrastatzen ditu —agian hizkuntza hegemonikoetako gehienek ez bezala— bere jarduna, iritzi literarioak eta bulkada estetikoak. Paradoxikoa badirudi ere, gerta liteke hizkuntza hegemonikoetako literatura isolatuago egotea bere hizkuntzaren mugetan.

Bigarren zirkunstantzia, euskara batua: azken mende erdian ez zaizkigu zailtasunak, polemikak eta tentsioak faltatu, baina uste dut nahiko bide eredugarria egin dugula hizkera literario batu baten bila. Batasunaren bidean, euskal idazleok Espartako soldadu haien diziplinarekin jokatu dugu: hil ala bizikoa genuen hainbat dialektotan banatutako gure hizkuntzaren batasuna, baina, aldi berean, askotan sakrifikatu ditugu literaturak hain berezkoak dituen askatasuna eta errebelia, euskara batua aurrera ateratzeko behar izan dugun diziplinaren kausaz.

Nolanahi ere, lorpen handia da batua. Orain berrogei urte ez bezalako eredu komuna daukagu idazteko, eta baita aukera gehiago ere zurruntasunak eta konplexuak baztertu eta askatasunetik zein askatasunez sortzeko.

Alde askotatik begiratuta, gure belaunaldiak, batuari berari forma literarioa ematea lortu du, gure obrekin lagundu dio batasunaren prozesuari, orain berrogei urte ez geneukan errealitate bat eraiki dugu. Euskara batuaren eremua da Atxagaren Obaba, halaxe da Sarrionandiaren *Lagun izoztua*, euskara batuan idatzitako monumentu bat da Saizarbitoriaren *Martutene* ere.

Apaltasun osoz: fortuna handia da idazle baten sormenarentzat halako momentu historiko batean egokitu eta parte hartu izana. Yorgos Séferisek bere *Egunerokoan* greziera modernoaz egindako hausnarketak ondo ilustratzen du adierazi nahi dudana:

“Gure hizkuntza bedeinkatua berritu: abantailaren bat izan behar genuen literatura zahar, literatura behin eta berriro landuz landuen aurrean” (10)

Baina halako fortunaren aurrean komeni da eskura izatea kontrapisua ere, Alex Susanna poeta katalanak *Quaderns dels marges* liburuan erakusten duen bidetik:

“Gutxi garatutako literatura baten [...] parte izatearen arazo eta arriskuak: laster ere laster ezagutzen da literaturaren eremu osoa, ibiltzen da osorik, neurtzen da alderik alde. Itomena baino areago, asperdura [eragin lezake], estimulu eta sorpresa falta” (11).

Bestalde, eta sorkuntzaz ari naiz ez politika linguistikoez, idazleok ez dugu lortu batuaren eta euskalkien arteko oreka, Italo Calvinok “nobelaren hizkera ideala” deitzen duena (12).

Hirugarren zirkunstantzia, literatura unibertsalak euskara ere ikasi

zuenekoa: oraintsu arte oso itzulpen gutxi izana da beste puntu ahul bat. Beste hizkuntzetan irakurri ditugu, halabeharrez, maisu-lan klasikoak eta garaikideak, oraintsu arte Fabrice del Dongok eta Madame Bovaryk ez zekiten euskaraz; ez zekiten euskaraz Leopold Bloomek eta Frankensteinek, Pedro Paramok eta Abel Sanchezek; *Alexanderplatz*eko pertsonaiak euskaraz ere mintzo zaizkigu orain Alexanderplatzetik.

Idazle eta irakurle guztiok gara elebidunak (gutxienez), gehienak euskaraz eta gaztelaniaz Hegoaldean, euskaraz eta frantsesez Iparraldean. Irakurri dugun ia literatura guztia euskara ez den beste hizkuntza batean jaso dugu, eskolan irakatsi ziguten hizkuntza bakarrean bereziki.

Umetan hobeto identifikatzen nuen gaztelaniaz irakurtzen nuena euskaraz irakurritakoa baino. Gaztelaniaz irakurtzen nuena bat zetorren entzuten eta hitz egiten nuen gaztelaniarekin. Euskaraz irakurtzen nuen apurra ez zetorren bat etxeko eta kaleko euskararekin, urruti zeuden

elkarrengandik, nahiz irakurtzen nuen hura entzuten eta hitz egiten nuena nire euskalki berean egon.

Euskara ez den hizkuntzaren ezagutza akademikoak eta irakurri dugun ia guztia hizkuntza hartan irakurri izanak itzultzaile mental izatera behartu gaitu.

Laugarren zirkunstantzia edo munduan gaude. Adituek diote hizkuntzen arteko *lingua franca*ren lana betetzen duen ingeles-edo instrumental praktikoa —gaur-gaurko komunikazio elementalenaren tresna nagusia dena eta, aldi berean, bere itzalpeko hizkuntza guztietan sekulako eragina duena— murriz laburra dela, funtzionala, burokratikoak, premia materialei lotua, grisa, xehetasunik gabea, esantzat emandakoekin eta ulertutzat jotakoekin jokatzeko duena. Bertako abstrakzioak sakonerarik gabeak omen dira eta konkretzioak, berriz, asmo eta destino bakarrekoak; ez omen du metaforizaziorako eta ironiarako gaitasunik.

Batu literarioa gauzatzen hasi zen bezain laster, euskara administraziora eraman beharra iritsi zen eta batu burokratikoak hasi ziren garatzen, neurri handi batean literaturan egindakoa aintzat hartu gabe.

Ezaguna da kazetaritza bezalako lanbideetan eta baita unibertsitatean ere (manualetan, artikuluetan, tesietan...) horrelako hizkera batek zer nolako deskalabruak eragin ditzakeen hizkuntza batetik besterako bidaietan: *smog*aren antzeko efektu kutsatzailea du hizkuntzetan. Asko hitz egin da horretaz, ez naiz luzatuko. Baina eredu horrek badu ispilua hizkuntza bakoitzaren praktikan ere. Italiaraz zein euskaraz, gaztelaniaz zein ingelesa ez diren Mendebaldeko beste hizkuntzetan ere bada joera bat, bizitzea egokitu zaigun garaiarekin lotuta egongo dena seguru asko eta emigrazioak edo ama-hizkuntza ez den hizkuntza

batean ikasi beharrak eragindako hizkuntzen erabilera instrumental praktikoagoa lehenesten duena.

AIPA DITZAKET ZIRKUNSTANTZIA GEHIAGO, baina uste dut lau pareta horiek aski direla gure eztabaida ez mugarritzeko, baina bai abiarazteko. Azken apunte gisa, Zagajewskik aipatzen duen polonierari buruzko zirkunstantzia bat ekarri nahi nuke euskararen egoerara: irakurleak aski du Zagajewskik *poloniera* dioen tokian irakurleak *euskara* irakurtzea, *errusiarrak* ordez *frantsesak*, *alemanak* irakurri beharrean *espainiarrak*:

“Polonieraz idatzi? Europako mapan eserita errusiar (beste garai batean) jenialen eta aleman (beste garai batean) jenialen artean? Agian ez da batere txarra adimen bizkorreko auzoak izatea baldin, gainera, gaur ez badira garai batean bezain adimen bizkorrekoak eta are gutxiago garai batean bezain agresiboak”. (13)

- (1) Milan Kundera, *El telón*, Tusquets, Barcelona, 2005.
- (2) Milan Kundera, *Le Ridau. Essais en sept parties*. Gallimard. Paris, 2006.
- (3) Witod Gombrowicz, *Diario (I)*, Alianza Editorial. Madrid, 1998.
- (4) Katarzyna Sosnowskaren komunikazio pertsonala (2017-I-30)
- (5) Adam Zagajewski, *En defensa del fervor*. Acantilado. Barcelona, 2005.
- (6) Czeslaw Milosz, *Abecedario*, Fondo de Cultura Económica. Madrid, 2003.

- (7) Herta Müller, *Mi patria era una semilla de manzana*. Siruela. Madrid, 2016.
- (8) Jean Racine, *Phrède et Hippolyte*, Le Livre de Poche. Paris, 1985.
- (9) Italo Calvino, *Mundo escrito y mundo no escrito*, Siruela. Madrid, 2006.
- (10) Yorgos Seferis, *Días, 195-1968*. Alianza Editorial. Madrid, 1997.
(Euskaraz emandako aipua gaztelaniazko bertsiotik hartua da eta bertan “[...] requeteelaboradas lenguas” dio.
- (11) Alex Susanna, *Quaderns del marge*, Planeta. Barcelona, 2006.
- (12) Italo Calvino, *Mundo escrito y mundo no escrito*, Siruela. Madrid, 2006.
- (13) Adam Zagajewski, *En defensa del fervor*. Acantilado. Barcelona, 2005.